

ERRIBERA KULTURGUNERAKO LOGOTIPO LEHIAKETAREN OINARRIAK

1.- Xedea eta ezaugarriak

Lehiaketa honen helburua Astigarragako Erribera kulturagunerako logotipoa aukeratu eta eraikinaren sarrerako errotuluaren diseinua egitea da.

Logotipoak kulturagunea argi eta garbi identifikatu eta bereiztuko du eta bistaratzean nahastezina eta arazorik gabe aplikatzeko modukoa izango da.

2.- Erabilera

Kulturagunearen irudi korporatibo berria onartu ondoren, Erriberako errotulazio nagusian, seinalitikan eta bertako jardueraren inguruan sor litezkeen euskarri guztietan erabili ahal izango da, izan paperean, bitarteko elektronikoko edo beste material batzuetan.

Diseinuaren gaia edo motiboa librea izango da.

Logotipoak «Erribera kulturagunea» inskripzioa izan beharko du, baina nagusitasuna izen espezifikoa izango du eta aukera egon beharko da irudia inskripziorik gabe erabiltzeko ere.

3.- Partehartzaileek

Udalak lehiaketan parte hartzeko gonbidapena egingo die eskualdeko hainbat diseinu eta komunikazio enpresari, baina bere web atariaren bidez ere emango du lehiaketaren berri.

Partehartzaileek lehiaketaren xedearekin bat datozen ideia propioak, originalak eta aurretik azaldugabeak aurkeztu beharko dituzte.

Parte hartzen dutenek konpromisoa hartzen dute beste inoren lanik ez baliatzeko, ez zatika eta ez osorik (esaterako, argazkiak edo diseinu elementuak). Jabetasun intelektuala dela-eta hirugarrengoen gerta daitezkeen auzietan, erantzukizun bakarra proposamena aurkezten duen lehiakidearena izango da.

Partaide bakoitzak gehienez bi proposamen aurkeztu ahal izango ditu lehiaketara.

4.- Proposamena aurkezteko era eta epea

Proposamen guztiak izengoitiarekin aurkeztuko dira, lehiakideen anonimotasuna bermatzeko. Identifikaziorako izengoitiak aurkeztutako agiri guztietan agertu beharko du. Lanak gutunazal itxian aurkeztuko dira, eta kanpoan soilik hau agertuko da: "Erribera kulturagunerako logotipo lehiaketa" eta aukeratutako izengoitia.

Gutunazal horren barruan beste bi gutunazal itxi sartuko dira, kanpoaldean lehiakidearen izengoitia bakarrik izango dute idatzita. Baten barruan egilearen identifikazio datuak: izena, helbidea, telefonoa, posta elektronikoa eta bigarrenaren barruan lanaren aurrekontua sartuko da, baina muga 4.400 eurokoa izan behar du.

Lanak Udal erregistroan (Foru plaza 13, 20115 Astigarraga) goizez entregatuko dira lanegunetan 9:00etatik 13:30era edo postaz, bitako edozein kasutan, lanak Udalaren esku egon behar dute ekainaren 22ko 14:00etarako.

Lanak inprimaturiko euskarrian aurkeztuko dira.

1. Euskarri zurrun batean (luma-kartoia, foam), atzealdea zuriko DIN A4 tamainan.
2. Bi bertsio aurkeztuko dira, koloretakoa bat eta grisen eskalan edo zuri.beltzean bestea.

5.- Irabazlea aukeratzea eta bere eginkizuna

Kultura batzordeko kideek eta berak izenda dezakeen aditu batek osatuko dute epaimahaia.

Ekainaren 30erako hautatuko du diseinu irabazlea eta aukera izango du egileari egokitze edo aldaketa txikiak proposatzeko, arrazoi tekniko edo estetikoengatik. Proposamenen arteko berdinketarik balego, aurrekontu txikiena duena aukeratuko da.

Erabakia hartutakoan, identifikaziorako gutunazalak irekiko dira.

Irabazleak lehiaketaren xede diren lanak egingo ditu berak aurkeztutako aurrekontuaren arabera. Hau da, irudi korporatiboaren eskuliburua eta eraikineko errotulu nagusirako diseinu eta material proposamena. Errotuluaren materialari dagokionez, proposamena udalak duen aurrekontura egokitu beharko da. Irabazleak lan horiek uztailaren 22rako egin beharko ditu.

Irudi korporatiboaren eskuliburuan logotipoaren azalpena eta oinarrizko elementuen deskribapen zehatza jasoko da, alegia, tipografia, koloreak RGB nomenklaturaren arabera, tamaina-zerrenda eta elementuen arteko egoera eta proposamenaren aplikazio adibideak. Aldagaiak, bektore-euskarrian eta bits mapen euskarrian aurkeztuko dira, hartara kode irekiko diseinudun programekin haien manipulazioa ahalbidetzeko, eta horregatik batez ere euskarri estandarrak erabiliko dira (JPEG, SVG, eta CMYK)

6.- Jabetza eta ustiatze eskubidea

Saritutako lana Astigarragako Udalaren jabetzakoa izango da eta jabetza intelektualak egileari aitortzen dizkion eskubide guztiak Astigarragako Udalari eskualdatuko zaizkio, salbu eta legeak egilearenak modu ukaezinean direla jotzen dituenak. Nolanahi ere, lanaren egileak soil-soilik Astigarragako Udalari uzten dizkio ustiatzeko eskubideak, denbora eta espazio mugarik gabe,

aldatze, inprimatze, argitaratze, zabaltze eta jakinarazte eskubideak, zeinahi prozedura eta modalitate bidez, zeinahi euskarri eta behar adina aldiz, oinarri hauetan aurreikusitako xedeetarako.

Era berean, Astigarragako Udalak beretzat gordetzen du logotipo irabazleak egokitu, aldatu eta eguneratzeko ahalmena beharrezkoa den guztietan, hainbat premia eta zirkunstantzietara egokitzeko.

Organo eskudunak egokitzat jotzen badu, Astigarragako Udalak lan saritua inskribatuko du eta haren gainean dituen eskubideak beharrezko jotzen dituen erregistro ofizial guztietan, esaterako, Patente eta Marken Erregistroan eta Jabetza Intelektualeko Erregistroan.

Saririk jaso ez duten lehiakideek beren lanak jaso ahal izango dituzte epaimahaiaren erabakia jakinarazi eta hilabeteko epean. Epe hori amaiturik, Udalak libreki erabili ahal izango ditu jaso gabe gelditu diren lanak.

7.- Prezioa eta ordainketa.

Lehiaketaren xederako aurrekontu eta prezio-muga 4.400 eurokoa da, baina lan sarituak bakarrik jasoko du ordaina. Lan sarituaren egileari bere aurrekontuaren %30a ordainduko zaio epaimahaiak erabakia jakinarazi ondoren eta gainontzeko %70a berriz, logotipoaren eskuliburua eta Udalaren eta errotulazio-enpresaren oniritzia izango duen errotulazioaren diseinua aurkeztu ondoren.

Egileak bi kasuetan dagozkion bi fakturak aurkeztu beharko dizkio Udalari honek ordainketa bidera dezan.

8.- Baztertzeko arrazoiak

Egoera hauetakoren batean sartuta dagoena lehiaketatik kanpo utziko da eta kultura batzordearen irizpidea apelaezina izango da.

— Proposamena epez kanpo entregatzea.

— Oinarri hauetako baldintzaren bat ez betetzea.

— Anonimotasuna ez gordetzea.

— Epaimahaiaren erabakian eragiteko zeinahi bitarteko erabiltzea.

— Funtsezko kontraesan, erregistro-desadostasun edo alderdi ulertezinak gertatzen badira.

9.- Arau orokorrak

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarriak bere horretan eta epaimahaiaren erabakia onartzen direla esan nahi du.

Oinarri hauetan arautu edo aurreikusi ez diren egoeretarako, edota interpretatzerakoan zalantzak izanez gero, kultura batzordearena izango da interpretatu eta erabakitzeko eskumena.

Astigarragako Udalak ebazpena eta lana ordaintzeko konpromisoa bertan behera utz dezake edota irabazleari ordaindutakoa itzultzeko eskatu honako kasu hauetan:

1. Udalak ezin badu logotipoa edo irudia erabili logotipoa plagiotzat jo, arrazoi teknikoren batengatik edota zeinahi ebazpen judizial edo administratibo dela medio.
2. Irabazleak bosgarren atalean aipatzen den eskuliburua garatzeko edota errotulu nagusia diseinatzeko betebeharra ez betetzeagatik edo epe barruan ez betetzeagatik.

Horrelako egoera bat gertatuz gero, Astigarragako Udalak dagokion espedientea izapidetuko du, interesdunari entzungo zaio eta 10 egun naturaleko epea emango zaio arazoak bideratu eta lana burutzeko. Epe hori igaro ondoren, Udalak dagokion premiamendu prozedura hasiko du.

10.- Datuen babesa.

Parte-hartzaileek onartzen dute euren datu pertsonalen tratamendu eta lagapena egitea lehiaketaren xederako, baina zuzentze, baliogabetze eta kontra-egite eskubideak Udalaren aurrean balia ditzakete.